

AMEZKETA'KO
AUZO-LANEKO
LEGEAK



Tolosa'n. I. Lopez Mendizabal'enean.



Bideak ongi zaindu eta basoak ugari-
tzeko AUZO-LAN izena duen
alka-laguntzarako legeak.

Lenengo Araua.—Ayuntamentuak Izendegi bat egingo du, beretan sartuaz auzo-lana egin bea duten guzien izenak. Izendegi au iru urtetarako izango da, baña bea diran sartu-aterak urtero egiñaz.

2'g. Araua.—Izendegian ipiñiko dira: 1/ auzo-lanean Lege onen aginduz aritu bea dutenen izenak. 2/ Auzo-lanera beartua dagon pamili edo señidi bakoitzak ditun gurdi, gurditxo ta aber-eak, eta 3/ Lanera beartuak ez daudenen izenak.

3'g. Araua.—Efian etxea irikia daukan eta efian bizi dan pamili guzia auzo-lanerako gizon bat ematera beartua dago, ezkongaya edo ezkondua, 18 urtetik 60 urte bitartean.

4'g. *Araua.*—Auzo-lanera beartuak ez daude: gorputzez gai ez diranak, eriko Agintariak, Apaiz Jaunak, eriko Enpleatuak, Maixuak, eta soldaduzkan daudenak.

5'g. *Araua.*—Auzo-lanak ez du urtean ama-bost egun baño geyago iraungo, ez ta ere iru egun baño geyago jaraituan, eta ez ta ere, azkenik, zortzi ordu baño geyago eguneko.

6'g. *Araua.*—Auzo-lanera beartuak daudenak ekariko dituzte beren gurdi, gurditxo eta abereak, bea' diran eran, nekazaritza edo kareto-rako erabiltzen ez diran abereak kenduaz.

7'g. *Araua.*—Auzo-lana ordeztu diteke, dirutan Ayuntamentuari ordainduaz onela:

Eguneko edo jornalak	Bere ordaña dirutan eguneko	
	Apirileko 1 tik Agoñaren 30'ra	Uñeyeko 1'tik Martxoaren 31'ra
Gizon balena.	6 pta.	5 pta.
Gurdia bere beyakin. . .	14 »	10 »
Abere aundiarena. . . .	3 »	3 »
Abere txikiarena.	2 »	2 »

8'g. *Araua.*—Alkateak bere ordezkari baten bidez auzo-lanera beartua dagon pamiliari ots egingo dio bi egun aurretik gutxienaz lenengo deyan, eta izendatutako egunean eguraldi txara

dalako edo beste zerbaitegatik ez baldin bada auzo-lanik egin, beñiz beste egun baterako deituko da, biga'fen dei au egiñik lan egin bea' dan egunaren aufe-eguneko eguardirako.

Lenbizikoan ordaña egin dezake 7'ga'fen arauan esan dan bezela, bai idazki edo eskrituz edo bestela Alkate edo Sekretarioaren afean azalduaz, eta baita biga'fenean ere, bañan auzo-lana egin bea' dan egun-aurretik; eta bai batean eta bai bestean onela ez azalduaz auzo-lanera beartuak gelditzen dira.

9'g. *Araua.*—Lana ordaintzea aukeratu duanak, eta ezpadu auxe betetzen, Alkate jaunak beartuko du sari ori ordaintzera, eta gañera beste erdi bat geigo, administrazio bidez eskatuaz bai lan-ordaña ta bai isun edo multa.

10'g. *Araua.*—Eri ontan oitura za'ra dan bezela eribideak zatitan partitu edo pus'atuak daude, geyena ibiltzen dituzten auzokoen artean. Zati bakoitza zaintzeko dagon gizatalde bakoitzak Buruzaya edo Kabo bat du, au dalako lan oetara egokien dato'fen era. Buruzaya edo Kaboa aukeratuko da urtero talde edo sail bakoitzeko gizonen artean, eta Ayuntamentuak izendatuko ditu Izendegia egitean bai gizataldea ta bai bere Buruzaya.

11'g. *Araua.*—Izendegia egitean, edo urtero zuzentzean, Buruzai bakoitzari emango zaizkio

bere taldeko gizonen izenak. Ayuntamentuak egingo du talde bakoitzeko Izendegi ori, ta Buruzayak jasoko du buru dan artean.

12'g. Araua.—Efibideak antolatu edo zuzentzeko auzo-lanak urtero Mayatzeko 15'etik Garagafilaren 15'era egingo dira, nekazariak kalte gutxien izan dezateken aldia dalako, lan oetarako egokiena izanik; Garagafilaren 15'etik 30'eraño Ayuntamentuak izendatutako Batzorde edo Komisioak ikusiko dituzte bideak, jakiteko auzo-lanak egiñak izan diran. Ez baldin ba-dituzte egin, beartuko dituzte Buruzai edo Kaboak eta bere taldea egin dezatela berai emandako zatia zortzi egunen baruan. Ez bada onela egiten, Ayuntamentuak egin araziko du, eta zigortuak izango dira onela nai ez duten auzokide edo taldeko oek Legedi onen 9'gafen arauak agintzen dun bezela.

13'g. Araua.—Efia dagon tokiak eskatzen dun ezkeru urbideak ondo begiratzea, jasa aunditako aldietan bideak gordetzen duen gañeko lufak eramanak izaten diralako, Buruzai edo Kaboak ongi begiratu bea' du bere mende dagon bide-zatian, urbideak bea' bezela egonaz, iñork eta ezergatik aldatuak izan ez ditezen, 15 pese-tako isun edo multaren azpian, urbideak aldatzen diran aldi bakoitzean. Multa au ordaindu

bea' du, okefa egin duenak, Alkate jaunari. Buruzai edo Kaboak oker oetako bat jakin bezin laister, Alkate jaunari azaldu bea' dio.

14'g. Araua.—Auzo-lanean beartua dagonak bialdu dezazke bere orde, berak ordaindutako langileak 18 urte baño geyago eta 60 baño gutxiago baldin ba-dituzte eta lanerako gai baldin ba-dira.

15'g. Araua.—Auzo-lana egin bea' dutenak, goizeko 8'etako, afez esandako lan egin bea' duten tokian egon bea' dute. Buruzai edo Kabo, edo bere ordekoaren aginduak zintzo bete bea' dituzte.

16'g. Araua. Auzo-lanera beartua dagoanak bere lanaldia osoa eta etengabe bete bea' du; Alkateak, Buruzayarekin alkartuta, bestera erabakitzen ez ba-dute beintzat.

17'g. Araua.—Lan ortarako erabakiak dauden aginduak betetzen ez dituzten auzokideak, naspila ja'ri nai dutenak, bere abere ta gurdiak bea' bezela ta lan egiteko eran antolatuak ez daramazkitenak edo, azkenik, saria artuko ez balute bezela lan egiten dutenak, lanetik bialduak izango dira. Bialtze ori Buruzayak edo Alkateak ordeztutakoren batek egingo du, eta bere ordaña eskatuko da dirutan 7'gafen arauan esaten dan bezela.

18'g. Araua.—Izendegia, eta urtero egiten

dan sartu-aterrea, amabost egunean agirian ipiñiko dira, bitarte ontan kalte dutenak beren eskabideak Ayuntamentuari azaldu ditzaten. Izen-degiak indaía izango du Ayuntamentu osoa bilduaz ontzat artzen duanean. Berak erabakiko ditu izan diran eskabideak ere.

19^g. *Araua*.—Alkateak ipiñitako isun edo multaren afeka jo diteke amabost egun bafunbean Tribunal Economico Municipal izenekoar-engana, bañan eskabide onek ez du atzeratuko ordaintzea, ontara legez beartuaz onela ere beabada.

20^g. *Araua*.—Buruzai edo Kaboa aleginduko da betetzen edo ornitzen auzo-laneko guziak beaf dan egunerako, ordezkoak arkituaz dirutan ordaintzea erabaki dutenen orde. Sari ori ordainduko du Efiak, eta onek berak eskatuko dio auzo-lana egitera beartua zegoanari, 7^g. arauan esandako ordaña.

ERASKIÑA

1/. Mañoa'ko bidean Ondafeke-langa ta Ortixako-langa'raño, Iruin-txiki ta Mendiko'tik asiaz, auzo-lanean egingo dute, beste toki batzuetan egin beaf duten lanaz gañera, eñian bizirik bide oek erabiltzen dituzten auzokideak; nagusia ez ba'litz eñian biziko, beren maiztefak, eta gañera

eguf, garo, belaf eta onelakoak jasotzen dituzten guziak eta baita ere bide oetatik bere txaboletara igotzen diran artzayak.

2/. Altungoena'ko bidegurutzetik asi ta Inpernuko-efekako langaraño Teleri'tik igaroaz dijoan bidean, auzo-lana egin beafko dute eñian bizi diran ta bide au erabiltzen duten nagusi guzik, eta etxe-nagusia eñian biziko ez ba'litz bere maiztefak, beste tokitan egin beafa duten lanaz gañera.

3/. Esan degun Altungoena'ko bidegurutzetik Inpernefeka'ko goiko langa ta Pelota-leku'raño auzo-lanera beartuak daude lenagoko zenbakian esan diranak, eta gañera Eraskin onen lenbiziko zenbakian esan bezela eguf, garo, belaf eta onelakoak jasotzen dituztenak.

4/. Bere lantokietatik gañera besteren batean lan egin nai duten auzokideak, luñak dituzte-lako-eta, beren laguntza artuko da, bañan berak lenagotik duten lan egin beafa utzi gabe.

5/. Basa - zaintzako auzo - lanerako, emen bide-auzo-lanerako arau ber-berak ibiliko dira.

Amezketá, 1930, Azaroa-30.

Agirebañena'taf Felipe.

Alkatea.

Imaz'taf Juan

Idazlaria.